



EIBARKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA,
ESTAZIÑO 118 JI ALDATZEKO ETA KOMUNITATE EKIPAMENDUKO SISTEMA OROKOR BERRI HAUEK SORTZEKO:
OSASUNEKOA ETA HILETA ZERBITZUETAKOA



2ª MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR QUE MODIFICA LA AI. 118 ESTAZINO Y CREA
NUEVOS SISTEMAS GENERALES DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO: SANITARIO Y FUNERARIO

**EIBARKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA:
118. ESTAZIÑO JIa ALDATZEA ETA KOMUNITATE EKIPAMENDURAKO
SISTEMA OROKOR BERRIA SORTZEA, BATA OSASUN ARLOKOA ETA
BESTEA HILETA ZERBITZUETAKOA.**

2012KO APIRILA.



EIBARKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRAREN 2. ALDAKETA,
ESTAZIÑO 118 JI ALDATZEKO ETA KOMUNITATE EKIPAMENDUKO SISTEMA OROKOR BERRI HAUEK SORTZEKO:
OSASUNEKOA ETA HILETA ZERBITZUETAKOA

2ª MODIFICACIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE EIBAR QUE MODIFICA LA AI. 118 ESTAZINO Y CREA
NUEVOS SISTEMAS GENERALES DE EQUIPAMIENTO COMUNITARIO: SANITARIO Y FUNERARIO



JUSTIFIKAZIO MEMORIA.



1.- AURREKARIAK ETA ALDAKETA JAKIN HORREN JUSTIFIKAZIOA.

1.1.- AURREKARIAK:

Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Orokorrari behin betiko onespena eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2006ko abenduaren 12an egindako bilkuran; testu bateratua 2007ko abenduaren 18ko Diputatuen Kontseiluak onartu zuen eta 2008ko urtarrilaren 22ko Gipuzkoako BOLETIN OFIZIALEAN argitaratu zen.

Beraz, lau igaro dira Plana indarrean sartu zenetik, eta horren erregulazioa gaurkotzea beharrezkoa egiten da harrezkero sortu diren premia batzuei erantzun ahal izateko.. Hiru dira Aldaketa honetan sartzen diren gaiak. Hona hemen:

- Estaziño 118. Integratutako Arearen mugaketa aldatzea.
- Otaola hiribideko 6-8an osasun arloko komunitate-ekipamenduko sistema orokor bat sortzea.
- Santaiñes kalean hileta zerbitzurako komunitate-ekipamenduko sistema orokor bat sortzea.

Aldaketa hau 2/2006 Legearen 104. artikulua arautzen dituen aldaketa horietako bat da eta haren 1. atalaren aurreikuspenak aplikatzen zaizkio:

Hirigintza-planen zehaztapenak berrikusi eta zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko da, eta, gainera, zehaztapen horiek onartzeko jarraitutako prozedura bera erabili beharko da.

Eibarko HAPNren kasuan, 1.2.05.01 artikulua hauxe dio: *Aldaketa espedienteen maila. Plan Nagusiko erabakien aldaketak dagokien mailak eta arau loturak eskatzen duten prozedura izapideak bete beharko ditu, beren izaeraren eta proiektu honetan horri buruz ezartzen den sistematizazioaren arabera, non eta maila handiagoko hirigintza espediente batean azken honi atxikitzen zaiola berariaz ezartzen ez den.*

2/2006 Legearen 53. artikulua, egiturazko hirigintza-antolamendutzat hartzen diren gaiak zehazten ditu. Artikulu horrek dioena irakurri ondoren atera daitekeen ondorioa da, aldaketa honen edukiak izan badirela artikulu horretan sartzen direnak, beraz, aldaketa jakin edo puntual honen tramitazioak planeamendu orokorreko instrumentuen tramitazioari berezkoak zaizkien arauak bete beharko ditu. Hain zuzen ere artikulu horren 1.f eta 2.b eta c atalei eragiten die:

- *Sistema orokorrean sarea zehaztea, hirigintzaren garapenaren arrazionaltasuna eta koherentzia ziurtatzeko modukoa.*
- *Hiri-lurzoruan, plan berezi bidez antolatuko diren areak zehaztea.*
- *Hirigintza-eraikigarritasuna finkatzea.*



Aldaketa honi izena ematerakoan HAPNren 1.2.05.02 artikularen arabera egin da, artikul horrek, Plan Nagusiaren aldaketa-espedienteak ondoko era honetan izendatu behar direla esaten baitu: "Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren Aldaketa" eta ondoren edukia eta garrantzia zehazten dituen adierazpena.

Azkenik, aldaketa-dokumentu honi herritarren parte-hartze Programa txertatu zaio. Bertan, besteak beste, Udal Planeamendurako Aholku Batzordearen tramitean parte hartzeko modua zehazten da.



1.2. 118. **ESTAZIÑO BIZITEGIRAKO JARDUKETA INTEGRATUA.**

Estaziño Jarduketa Integratuak, HAPNan zehaztua, 2.873 m²ko azalera duen esparru bat hartzen du, eta 2.513 m²ko azalera garbi bat du zuzkidura publikoak kenduta. Beraz, zuzkidura publikoek 360 m²ko azalera hartzen du. Hirigintza-erakigarritasuna 6.685 m²koa da; sestra gaineko erakigarritasun fisikoak 5.529 m² ditu.

Esparru barruan Eusko Trenbidearenak diren lursailak daude, 1.048,94 m²ko azalera dutenak; lursail horretan, tren-geltokiaren zati bat eta ondoan dituen eraikinak daude. Gainerako azalera guztia jabe pribatuena da. Lursail horietan, antolamenduz kanpo dauden eraikin zaharkituak aurkitzen dira. Plan Nagusiak eraikin guzti horiek eraistea aurreikusten du, baita Euskotrenarenak ere. Estaziño kalearen ostean beste kale bat zabalduko da, kalearen beste aldean dagoen eraikin berriarekin amaituko dena.

HAPNren behin betiko onespeneraren aurretik, hirigintzako jarduketa plan bat edo HJP bat (onartua dagoena) eta Hiri Antolamendurako Plan Berezi bat egin dira, Area Integratu horren kudeaketari ekin ahal izateko.

Plan Nagusiaren hasierako dokumentu definitzaile haiek egin zirenetik bertatik, Eusko Trenbide Sareak bere kezka erakutsi izan du Plan Nagusiaren antolamenduaren aurrean, bere lursailak jarduketaren zati bat gehiagotzat hartzen baititu. Hau da: Planak, jabetza pribatu bat gehiago balira bezala tratatzen ditu.

2007ko urriaren 9an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketa Departamentuaren titularrak, Foru Agindu bat eman zuen "Eibarko herriaren antolamendurako Plan Nagusiaren dokumentu bateratua"ren inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako batzordearen aldeko txostena jasotzen zuena. Bestek beste, ohar hau egiten zuen:

B) "Garraio Azpiegitura alorrean, 2006ko urriko Udal batzarrean adierazi zen bezala, Planean azaltzen den saihezbidea eta erdigunean tren kentzea, dokumentuan ageri den bezala, ez daukate zerikusirik (ez dira lotesleak) Herrilan eta Garraio Sailarekin"*

Udalak eskatu zitzaizkion zuzenketa haiek egin ostean ohar hori berriro azaltzen da 2007ko abenduaren 18ko HAPNren Testu Bateratuaren onspen erabakian.



Aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aurkeztutako txostenean, VII 2.b.) atalean "Atxikipenak EHAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Planean ezarritako zehaztapenei" izenekoan, hitzez hitz hauxe azaltzen da: *"gaur egungo aurreikuspenen barruan, trenbideak duen trazatuari eusteko asmoa dagoela. Horren ondorioz, Planeamendu Orokorrean dagoen proposamen hori kendu egin beharko litzateke."*

Aipatu diren testu horiek garbi eta garbi erakusten dute Eusko Trenbideak ez duela Estaziño 118 Jiren esparruan Plan Nagusiak proposatutako antolaketa bere gain hartzeko asmorik.

Ostera, Eibarko HAPNak ez zituen bere egin Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak emandako gomendioak eta trenbide-saihesbidearen trazatuari eta Estaziño gunerako hiri-diseinuari eutsi egin zien.

Handik gerora trenbide-kudeatzailearekin egindako bileretan, Estaziñoko Jarduketa Integratua berriro diseinatzearen alde agertu zen, bere jabetzako lursailak handik erauziz eta jarduketa hori Komunikazioetarako Sistema Orokor bezala birsailkatuta. Hau da: Kanpoko Trenbide Sare bezala. Hori bat dator Sailak dituen aurreikuspenekin eta Eusko Trenbidearenekin eta Lurraldearen Arloko Planean (LAP) islatzen da.

Orain arte esandakoari gunee Integratu horren kudeaketak duen zailtasuna gehitzen badiogu, etxegintzaren merkatuak behea jo duelako, HAPNak proposatutako diseinua edukiko lukeen edozein jarduketa zaildu egiten da ikuspegi ekonomikotik. Bestalde, sortu nahi den kale berri horren trazatua aldatzeko premia dagoela ikusi da, Blas Etxeberria kalearekin aurrez aurre gera dadin eta Bittor Sarasketa kalearekin lotura edo konexioa mantenduta. Hori dena da Estaziño Jarduketa Integratuarentzat Plan Nagusiaren aldaketa puntual bat egitea beharrezkoa egiten duena.

Aldaketak ez du ekarriko Planean aurreikusitako hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntzarik, beraz, ez da aplikagarria Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legearen 80.2 artikulua babestutako etxebizitzendako lursailak gordetzeko ezartzen duen agindu hori. Hortaz 2/2006 Legearen xedapen iragankorrek diotena hauxe da:

4. Xedapen Iragankorra:

3.- *Betebehar hori ez da nahitaezkoa izango tramitatzeko dagoen antolamendu xehatuko plangintzaren kasuan, baldin eta plangintza horrek egiturazko antolamendua 17/1994 Legeko babes publikoko etxebizitzaren estandarrak betetzeko egokituta garatzen badu, ez eta egiturazko*



antolamendu horren aldaketen kasuan ere, baldin eta bizitokietarako hirigintza-erakigarritasuna handitzen ez badute. Egiturazko antolamendu horren aldaketetan bizitokietarako hirigintza-erakigarritasuna handitzen bada, aldaketa horiek lege honetan babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzentzat ezarritako estandarrak bete beharko dituzte.

4.- Aurrekoa horrela bada ere, babes publikoko araubide bati atxikitutako etxebizitzetara buruz ezarritako gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzea, hain justu, antolamendu xehatuko plan guztiei eta behin betiko onespenez ez duten urbanizatzeko jarduketara programei eskatu ahal izango zaie. Horretarako, planek bi urteko epea eta programek 30 hilabetekoa izango dute, lege hau indarrean sartzen den egunetik kontatzen hasita.

Planteatzen ari den aldaketa puntual hau finkatzeko dagoen hiri-lurreko area edo gune bati dagokio, eta lur horretarako garatu eta onartu zen Urbanizatzeko Jarduketa Programa bat 2/2006 Legearen laugarren xedapen iragankorrak finkatzen duen urte biko epe hori igaro baino lehen.

Plan Nagusiaren aldaketa puntualaren figura hori beharrezkoa da eta horretarako erabiltzen da, Eusko Trenbidearen lursailak esparru horretatik kanpo utzi ahal izateko eta Sistema Orokortzat sailkatu ahal izateko; baita hori garatzeko beharko litzatekeen Plan Bereziaren tramitazio-premia baztertzeko ere, esparru hori, Geroratutako Antolaketa Eremu edo area (GAG) izatetik Antolaketa Generikokoa (AG) izatera igarota.

Aurreraxeago ikusiko den bezala, Aldaketa Puntual honek murriztu egiten du Jarduketa Integratuaren esparrua; Eusko Trenbidearen lursailak Sistema Orokortzat birsailkatzen ditu (errealitatearekin baterago datorren sailkapena), hasieran proposatutako eraikuntza-diseinua aldatu egiten du, kale berriaren trazatua aldatu egiten du, hirigintza eraikigarritasunari gutxi gorabehera eutsi egiten dio zertxobait murriztuta, baina oso modu nabarmenean murriztu du sestra gaineko eraikigarritasun fisikoa, kudeaketa erraztu egiten du garapenerako tresnak sinplifikatzen. Laburbilduz: saihestu egiten ditu esparruaren kudeaketa ezin gauzatuzkoa egiten duten traba guztiak.

PROPOSATZEN DEN ALDAKETA:

Estaziño 118. Jiren esparruaren aldaketa egitea planteatzen da, Eusko Trenbideak gaur egun dituen lursailak, instalazioak eta eraikinak *Komunikazioetarako Sistema Orokorra - Kanpoko Trenbide Saretzat* sailkatuta. Esparru barruan geratzen den lursailaren azalera 2.873 m²-tik 1.881,92 m²-ra pasatzen da.



Estaziño, Pagaegi eta Ibagain kaleen artean dagoen etxe-uharte edo sail hori berrantolatu egingo da, proposatutako eraikinari lerrokadura berriak ezarrita. Sortuko den bide berri horrek Bittor Sarasketa kalearekin konektatzen du Estaziño kaleko 13. etxearekin elkartzen den lekuan; eta horrela, Estaziño kalea oinezkoendako kale izateko aukera dago. Bide berri hori, goiko aldetik, Estaziño kalearen paraleloan joango da, eta gero, Pagaegi kalearekin elkartuko da Blas Etxeberría kalearen parean.

Aldaketa horrek ez du ekarriko Plan Nagusiak aurreikusten duen hirigintza eraikigarritasunaren gehikuntzarik.

Esparruari izendatutako batz besteko eraikigarritasuna aldatu egiten da esparru horren hirigintza-garapena bideratu ahal izateko; horretarako, murriztu egiten da aurretiko hirigintza eraikigarritasuna.

Esparruaren antolaketa-irizpidea aldatu egiten da eta antolaketa xehatuan sartzen da, eta Jarduketa Integratuaren garapena, HJP baten eta Xehetasun Azterketa baten bidez egitea planteatzen da.

	HAPN	Proposatutako aldaketa	Araubidea
Esparruaren azalera.	2.873 m ²	1.88192 m ²)	
Azalera garbia.	2.513 m ²	1.88192 m ²)	
Eraikigarritasuna. Sestraz gaineratik	5.529 m ²	4.32842 m ²)	LLko 77. artikulua. 4.328,42 m ² = 1.881,92 m ² * 2,30.
Eraikigarritasun osoa.	6.685 m ²	5.07825 m ²)	
Ereduzko aprobetxamendua	2,23	2,36	
Aprobetxamendu homogenezatua.	5.607 m ² , erabilera bereizgarria.	4.450,16 m ² , erabilera bereizgarria.	

Lauki horretan ikus daitekeenez, sestra gaineko eraikigarritasun fisikoa 2,30 m²t/m²s da (lurzoru metro koadro bakoitzeko 2,30 metroko sabai indizea), beraz, Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Legeko 77. artikulua ezarritakoa bete egiten da eta hirigintza-eraikigarritasuna murriztu egiten da.

Aplikagarriak zaizkion exijentziak 2/2006 Legearen garapenerako presako neuriei buruzko 105/2008 Dekretuaren 17. artikulua ezarritakoak dira, hauxe dioena: finkatu gabeko hiri-lurzoruko eremuen antolamendu xehatuak, erabilera nagusia bizitegi-erabilera denean eta jardun integratuen bidez garatzea aurreikusten denean,



Lurzoruaren eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 79.2 artikuluan ezarritako lursail-erreserbak ezarri beharko ditu gutxienez toki-zuzkiduretarako. Eremua garatuko duen HJPea justifikatu egin behar da zuzkidura publikoen, ekipamendu pribatuaren eta aparkalekuen erreserbak bete egin direla, edo, bete ezean, ordezkoko kalte-ordaina.

Landareetarako erreserba bete egiten da neurri batean 25 zuhaitz edo arbola sartuta; hortik gora sartu behar direnak, 40, Olaldekosoloa 1. zuzkidura publikokok Jaraketan gauzatuko dira.

ALDAKETA PUNTUALAREN XEDE DIREN LURSAILEN JABETZA.

Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen legearen 70-hir. artikulua haxe dio: *Antolatze-ahala osorik baliatu gabe egindako hirigintza-antolamenduaren aldaketa batek eraikigarritasuna edo dentsitatea handitzen edo lurzoruaren erabilerak aldatzen dituenean, espedientean jaso beharko da zein diren aldaketak ukituriko finkek aldaketa hasi aurreko bost urteetan izan dituzten jabe guztiak edo haien gainean diren bestelako eskubide errealeen titular guztiak, erregistroan edo erabilitako tresnan jasotakoaren arabera..*

Artikulu horrek dioenaren arabera, haxe da jasota utzi nahi dena: dokumentu honen eraginpean dauden erregistro-finkak haxe direla:

Erregistroan agertzen den finka.
1038
1062
1092
1121
3020
990

Espedientean, azken 5 urte hauetan finka horien eskubide errealeen jabeen eta titularren identitatea jaso da eta erregistroaren ziurtagiriak erantsi zaizkio espedienteari, horretarako eskatu izan direnak.



1.3 OLALDEKOSOLOA 1. OSASUN ZUZKIDURA PUBLIKOA BETEARAZTEKO JARDUKETA.

Eskualdeak duen beharra, gaixotasun kroniko konplexuak dituzten pertsonen arreta eskaintzeko ospitale espezializatua, gaixotasun kronikoen epidemiologian izandako aldaketatik eta gaixotasun horiek dituzten zainketa-premiengatik sortzen da.

Osakidetza eta udal hau bat etorri ziren Debabarrenean osasun ekipamendu bat eraikitzeko beharra zegoela esatean, gaixo kronikoen estrategiaren testuinguru horretan osasun publikoko azpiegiturak hobetzeko xedez. Osasun ekipamendu hau jartzeko baldintza zehatz batzuk zituen orube bat zen bilatzen ari zena: Herri barruan egon behar zen, hirigunean balego hobe; sarbideak eskura edukitzea eta garraio publikoz iristeko leku erraza izatea; horrez gain, aparkalekua gertu edukitzea eta 6.600 m²tik gorakoa izatea.

2011ko abenduaren 13an lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu zen Eibarko udalaren eta OSAKIDETZA-SVSren artean, alde bakoitzak dituen konpromisoak arautzeko eta Eibarko udalerrian osasun ekipamendu berri bat eraiki ahal izateko (Azpiakutuen Ospitalea) Eibarko udala eta Osakidetza-SVS, biak konprometitzen dira udalerrian osasun ekipamendu berri bat eraiki ahal izateko ahaleginak batzera -Eibarko herriak gaur egun eta etorkizunean izango dituen premiei erantzuteko behar den adinako dimentsioa eta funtzionalitatea izango duen ekipamendua- eta Bilbo-Donostia ardatzaren erdian biztanle gehien eta komunikazio onenak dituen herrian azpiakutuendako ohe-eskaintza gehitzen laguntzera.

Zehaztearren, ospitale berri hori udalerrian honetako Otaola hiribidearen 6-8an dagoen partzela baten gainean jasoko da. Antzina, "Mendiguren y Zarrua" enpresak okupatzen zuen. 7.444 m²ko azalera du Erregistroaren arabera. Eibarko hiri bilbearen barruan dago kokatuta: hego aldetik Otaola hiribidea du, eta bestetik, iparraldetik, Ego erreka.

Udalak, urtea amaitu baino lehen HAPNren aldaketa egiteko behar diren tramiteei ekiteko konpromisoa hartu zuen, finka hori osasun ekipamendutzat sailkatu ahal izateko.

Osakidetzak, Eibarren izango den Azpiakutuen Ospitalearen Plan Funtzionala ezarri du. Bere programan, Ospitaleratzeko Bost Unitate barneratu ditu, guztira 140 oherekin. Horietatik, 110 beti okupatuta egongo direla uste da. Eraikinak, horrez gain hauxe izango du: Eguneko ospitale medikoa, etxeko ospitaleratzeta, kanpoko kontsulten saila, etengabeko arretarako atala, errehabilitazio zerbitzua, ospitaleaz kanpoko adimen-osasuneko zentroa, tele-medikuntza eta erradiodiagnostikoko saila. Aparkaleku bat ere izango du 150-200 leku ingurukoa.



PROPOSATZEN DEN ALDAKETA:

Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiak, Otaola 6ko partzela hori hiri-lurzoruan sailkatutako lurzoruan kokatzen du, eta Jarduera Ekonomiko Arruntaren sailkapen xehatua duen partzela batean. Aurretik zegoen aprobetxamenduari zegokiona ezartzen zuen (aurretikoa finkatua zegoen, 9.600 m²) eta lerrokadura berriak esleitzen zituen 5.000 m²-ko okupazio batekin. Eraikin hura egoera toleragarrian zegoen eta haren ordeztu beste bat jasoz gero gehieneko lerrokadura berri batzuk ezarriko litzaizkioke (XII Planoa O-AL-AO-2C, Lerrokadura eta Sestrena). Lerrokadura berrian Ego errekatik 7 metrora jartzeko obligazioa ezartzen da, baita bide bat sortzekoa ere.

Planaren A82 eremuaren fitxan -partzela hor dago sartuta- esparru hura antolatzeko irizpideak eta helburuak ezartzen ziren:

- * Torrekua eta Otaola lotzen dituen bidean beste karril edo erre bat jartzea proposatzen da, honen eta Barrenengua, Otaola eta Torrekua artean eratzen den eremuak "hiri errotonda" handi baten funtzioa bete dezan.
- * Hango industria-eraikinak botatzen edo kentzen doazen heinean, ibaiertzeko pasealekua berreskuratzea.

Partzela erosi ondoren, Eibarko udalak martxan ipini du Torrekua eta Otaola lotzen dituen bidean beste karril edo erre bat egiteko Proiektua. Horrela, horren eta Barrenengua, Otaola eta Torrekua artean eratzen den eremuak "hiri errotonda" handi baten funtzioa bete dezan. Antzinako industria-partzelaren lurzorua zati bat -orain udalaren jabetzakoa- horretarako erabiliko dira; horretarako eta Amaña auzoa Otaolarekin elkartuko duen oinezkoen oinezko egiteko. Horrela beteko da Pn finkatutako helburuetako bat. Eta partzelaren gainerako zatia komunitate-ekipamendurako osasun sistema orokortzat sailkatuko da.

Eremuaren helburutzat mantenduko da "ibaiertzeko pasealekua berreskuratzea hango industria-eraikinak botatzen edo kentzen doazen heinean." Ostera, partzelaren sailkapen xehatua aldatu egingo da eta osasun komunitate-ekipamendurako erabilerara zuzenduko da, sistema orokor bat eratuta.

Eibarko hiri antolamendurako Plan Nagusiak, bere 5. tituluan, Sistema Orokorrak zer diren azaltzen du. Sistema Orokorrak, Egitura Organikoaren eta Erabilera Globalen planoetan zedarrituta agertzen dira, eta kategoria bakoitzak bere bilbe zehatz eta berezia du; horien artean dugu komunitate-ekipamenduko Sistema Orokorra.

5.1.02.02 artikuluan arautzen dira sistema orokorrak, eta sistema orokorren elementuei lotutako erabilera bakoitzaren erregulazio berezia edo berariazko arautzea, "8.TITULUA. ERABILEREN ARAUAK" atalean agertzen da, sistema orokorrak burutzean errespetatu beharko diren baldintzak ere tartean direla.



Oraingo kasu honetan ekipamendu-erabilera da, Osasun motakoa eta HAPNak honela zehaztu edo definitzen duena: Jarduera hauek hartzen ditu: Zerbitzu medikoak, kirurgikoak eta ospitale-zerbitzuak eskaintzea, administratzea; zerbitzuei buruzko orientazioa, prebentzioa eta informazioa ematea; baita jarduera nagusiaren osagarri diren gainerako jarduerak ere.

Sistema orokorrak edo sistema orokor hauen elementuak, gai espezifikoaren arabera dagokien proiektu teknikoa idatziz garatuko dira. Hala ere, Udalak erabaki ahal izango du sistema orokorren beste edozein elementu edo osagai Plan Berezi baten bitartez burutu behar izatea, hain zuzen ere, Plan Nagusian aurreikusitako lurzoru erreserbak egokitu behar direnean edo elementuaren ezarpenaren eta gertu duen ingurunearen arteko koordinazioa berriro doitzea komeni denean. Oraingo kasu honetan, erabilera berriaren ezarpenak duen garrantzia "lurzoruaren erreserba egokitu" kontzeptutik askoz haratagokoa da, eta horregatik ikusi da beharrezkotzat Eibarko Hiri Antolaketaren Plan Nagusiaren Aldaketa Puntuala tramitatzea, osasun komunitate-ekipamenduko sistema orokor berria sortu ahal izateko.

Jarduketa-motari dagokionez, sistema orokorren sareko zuzkidura publikoa egikaritzeko edo betearazteko jarduketa bat izango litzateke, 2/2006 Legearen 139. artikulua arautzen dituenetarikoa. Hala ere, berezitasun hau du: oraingo kasu honetan desjabetzea ez dela beharrezkoa, udalak partzela salerosketa bidez erosi duelako.

Zuzkidura publiko bat egikaritzeko jarduketa bat denez, 2/2006 Legearen 135. artikulua arabera ez da behar, ez Urbanizatzeko Jarduketa Programa tramitatzetik, ez Birpartzelatze Proiekturik eta ezta banaketa-arearen mugapenik ere. Ostera, antolaketa xehatu bat behar du, Aldaketa honetan jasotzen dena; eta behar du baita zuzkidura publikoaren obra-proiektuaren onarpena.

HAPNn fitxa berri bat sartuko da, ospitale-zuzkiduraren hirigintza-parametroak eta antolaketa zehatza jasotzeko, geroxeago azalduko den bezala.

PLANEAMENDUAREN AURREIKUSPEN BERRIAK.

Ekipamendu berriaren barruan, Ospitalarendako 5.500 metro karratuko gehieneko okupazioa aurreikusten da (gaur egun PNk industria-erabilerarako ezarritakoa baino zertxobait gehiago) aparkaleku kopuru handiena bideratu ahal izateko. Hauxe aurreikusten da: gehieneko okupazio hori Otaola hiribideko sestra azpitik dauden solairuetan bakarrik hartzea (hain zuen ere erdi-soto bitan), baina goiko solairuetako erabileraren premia horiek murriztu egiten dute solairu bakoitzeko okupatutako azalera, beheko solairuan 3.325 m²koa izango dela. Beheko solairurako aurreikusi den gehieneko lerrokadura horien gainean beste hiru solairu gehiago egitea aurreikusten da osasun ekipamendurako, lerrokadura horretatik metro 1ean irten daitezkeenak.



Aurreikusitako profila hauxe da: erdi-soto 2 eta 4 goi-soilaru Otaola hiribidetik begiratuta. Torrekua kalearekin dagoen desnibelak, sarbidea barruko urbanizaziotik izango duten erdisotoko solairu bi eraikitzeke aukera ematen du. Lehenengo sotoa garajetarakoa izango da; bigarrena, osasun ekipamendurako.

Alturako edo garaierako industria-eraikinen ingurune batean gaude, eta ospitale erabilera berri horrek izango dituen altuera edo garaiera partzial horiek baino garaiera handiagokoak. Mugakidea den esparrurako (203.01 OTOLA 10-12-14-14bis-16 IJ) dagoen aurreikuspena hartzen dugu erreferentziatzat. Planaren fitxak aurreikusten duena hauxe da: Otaola hiribidearen sestratik gorako profila 4 solairukoa izatea (beheko solairua eta goian beste hiru solairu) Jarduera Ekonomikoko erabilerarekin. Profil horri dagokion gehieneko altuera edo garaiera 20,40 metrokoa da (hala dator zehaztuta Ordenantzetan, 9.6.04 artikuluan eta 9.6.05 artikuluan) eta forjatuaren batz besteko sendoera 50 cm-koa. Horrez gain, Ordenantzen 9.3.13 artikulua dio, beste erabilera berriren bat ezartzean gehieneko altuera edo garaiera errespetatu egin behar dela eta metro bat eta hogeitazentimetroz gainditu ahal izango da.

Ekipamendu-eraikin berriaren gehieneko altuera 21 metrokoa izango da beheko solairuaren sestratik zenbatuta. Beheko solairua metro bat ingurura geratuko da Otaola hiribideko sestratik. Hirigintza Arauen 9.6.04 eta 9.6.05 artikuluek diotena aplikatzen badugu –erabilera berrirako gehieneko eta gutxieneko alturak-aurreikusitako profil hori ahokutzen uzten digu gaur egun aldameneko partzelarendako PNak aurreikusten duen gehieneko altuera gainditzeke. Horrez gain, horretarako behar diren instalazioak gehieneko altuera horren barruan erabilera sartzea aurreikusi da.

Osakidetzak ospitalerako ezarri duen programaren arabera aurreikusten den gehieneko eraikigarritasuna 23.500 m²-koa da; horietatik, 18.000 ospitale-ekipamenduaren erabilerarako izango lirakeke, eta gainerakoa, zuzkidura-erabilera nagusiarekin lotutako garaje-erabilerarako. Hor daude sartuta baita Otaola hiribideko sestra azpian dauden erdisotoko solairu biak.

Aurreikusitako jardun hori Ego ibaiaren zortasun-zonaren eraginpean dagoenez, horren inguruan indarrean dagoen legeriak dioena bete egin behar du. Betebehar hori, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko Ur Zuzendaritzak baloratu behar du.

Aurreikusitako Aldaketa horiek ez dute aldatzen lurzoruaren sailkapena. Ez diete eragiten, ez Lurzoru Urbanizaezinari, eta ezta ingurumenaren ikuspegitik hauskorak diren aldeei ere, beraz, ez da behar Ingurumenaren gaineko Eraginaren Azterketarik tramitatu behar.

Kontuan hartu behar den beste alderdi bat, Osasun Ekipamenduaren partzela berriari eragiten diona, Lurzoruaren Kalitateari buruzko Deklarazioa da. Gaur egun partzela



hori bateragarria da aurreikusitako Industria Erabilerarekin. Sailkapen Aldaketaren aurrean, Erabilera berri bat dakarrena, sailkapen aldaketaren behin betiko onespeneraren aurretik Lurzoruaren Kalitateari buruzko Deklarazio berria eskuratu behar da, aurreikusitako erabilera berri horrekin bateragarria izango dena.

Zaritari buruzko 37/2003 Legeak hauxe ezartzen du: neurtutako edo kalkulaturako inmisio-indizeek ez badituzte betetzen dagozkien gune akustikoei aplika dakizkiekeen kalitate akustikoaren helburuak, debekatuta dagoela etxebizitza, ospitale-erabilera, hezkuntza-erabilera edo kultura-erabilerarako eraikinak jasotzeko lizentzia berriak ematea, babes akustiko bereziko aldeetan eta egoera akustiko bereziko guneetan izan ezik, horietan eskatuko den gauza bakarra, barneko espazioan, gune horiei aplikagarriak zaizkien kalitate akustikoko helburuak betetzea izango baita.

Udalek, behar bezala funtsatutako interes publikoko arrazoi bereziengatik, aurreko atal horretan aipatu diren eraikin horiek eraikitzeko lizentziak eman ditzakete kalitate akustikoari buruzko helburu horiek ez bete arren, baldin eta barneko espazioetarako ezarritako helburuak betetzen badira.

Beharrezkoa izango da azterketa akustiko bat egitea eraikuntza-lizentzia eman aurretik, eta azaldu diren baldintza horiek betetzen ez badira, beharrezkoa izango da, edo lizentzia ematen denean helburu horiek betetzen utziko luketen neurriak hartzera baldintzatzea, edo eraikin berriari lizentzia emate hori oinarrituko luketen interes publikoko arrazoi bereziak daudela justifikatzea.

ALDAKETA PUNTUALAREN XEDE DIREN LURSAILEN JABETZA.

Toki Araubidearen Oinarrietako 70. artikulua hauxe ezartzen du: Antolatze-ahala osorik baliatu gabe egindako hirigintza-antolamenduaren aldaketa batek eraikigarritasuna edo dentsitatea handitzen edo lurzoruaren erabilerak aldatzen dituenean, espedientean jaso behar da zein diren aldaketak ukituriko finkek aldaketa hasi aurreko bost urteetan izan dituzten jabe guztiak edo haien gainean diren bestelako eskubide errealeen titular guztiak, erregistroan edo erabilitako tresnan jasotakoaren arabera...

Artikulu horrek dioena betez agerian uzten dena da, dokumentu honen eraginpean dauden partzelak eta partzela horien titularrak -2007rik 2012ra bitartean- hauek direla:

Artikulu horrek dioenaren arabera, hauxe da jasota utzi nahi dena: dokumentu honen eraginpean dauden erregistro-finkak hauek direla:



**Erregistroan
agertzen den
finka.**

2106

Espedientean, azken 5 urte hauetan finka horien eskubide errealen jabeen eta titularren identitatea jaso da eta erregistroaren ziurtagiriak erantsi zaizkio espedienteari, horretarako eskatu izan direnak.



1.4 TXALTXAKUA 142. ZUZKIDURA JARDUKETA INTEGRATUA.

Handia da udalerrian hileta zerbitzuetako komunitate-ekipamendu bat eraikitzeke dagoen eskaera, batik bat beilategi edo tanatorio erabilerarakoa, gaur egun dagoen bakarra jaso berria delako eta neurri oso txikikoa, hiriak dituen premiei erantzuterik ez duena.

HAPNan badago jasota hileta-zerbitzu erabilerarako komunitate-ekipamenduko Sistema Orokor baten aurreikuspena Altamira aldean, beste hainbat erabileren artean, beilategiarena hartu ahal izango lukeena. Hala ere, gaur egun behintzat, ez dago inongo aurreikuspenik han ezer egiteko, eta ez du ematen epe ertainera edo luzera ere zerbait egingo denik.

Hileta-enpresa batek ekipamendu hori lehen Txaltxakua baserria zegoen partzelan jartzeko proposamena egin du, Otaola hiribideko 11. industria-eraikinaren ostean, kanpoko igerilekuen alde berriaren eta Eroski merkataritza-zentroaren ondoan.

Hiriak duen leku falta benetan handia denez, proposatu den leku edo kokapen hori egokitzat hartzen da, bete behar diren baldintzak bte egiten dituelako: ibilgailuendako eta oinezkoendako sarbide egokia du eta han inguruan aparkatzeko lekua ere badago. Gainera, ez du bizitegi-erabilerako eraikinik gertu.

Indarrean dagoen HAPNan, proposatutako lursail horrek Komunikazioetarako Sistema Orokorren sailkapena du eta han errotonda bat egitea aurreikusten da, Otaola hiribideko errepidearen paraleloan joango litzatekeen bide berri batekin elkartzeko xedez, HAPNren aurreneko testuak aurreikusten zuen bidea edo errepidea. Hala ere, behin betiko onarpena jaso zuen HAPNk azkenean ez zuen jaso errepide hori; ostera, biribilgunearen eraikuntza mantendu egin zuen. Beraz, begien bistakoa denez, gaur egun logikarik ez duen aurreikuspen bat denez, aldatzea eta erabilerak berri bat ematea zilegi eta egoki da. Orain hileta-zerbitzuetarakoaren sailkapena ematen zaion lursailaren zati batek kirol ekipamendurako sistema orokorraren sailkapena du eta hori ezin da murriztu. Horregatik, autobidetik gertuen dagoen aldean horren antzeko azalera bat utziko da kirol ekipamendutzat sailkatuta.

PROPOSATZEN DEN ALDAKETA:



Hileta-zerbitzu motako ekipamenduarena da proposatutako erabilera. Honela definitzen du HAPNak: *Tanatorioari dagozkion instalazioak, gorpuak deuseztatzekoak eta hileta agentzien eta enpresa zerbitzuenak hartzen ditu.*

Beraz, komunitate-ekipamendu berri bat da egin behar dena, oraingo kasu honetan titulartasun pribatukoa. Beraz, HAPN aldatu egiten da eta Jarduketa Unitate berri bat sortzen da. Hiri-lurzorua da baina inguru edo alde horretako urbanizazioak ez ditu hileta-zuzkidura hori ezartzeko bete beharko lituzkeen neurriak eta ezaugarriak, beraz, hiri-lur ez finkatua da.

2/2006 Legeak eta Eibarko HAPNk erabiltzen duten jarduketa-moten sailkapen horri jarraituz, urbanizazioz finkatzeke dagoen hiri-lurzoru baten burutuko den jarduketa bat denez, oraingo kasu honetan jarduketa integratu bat izango litzateke, zuzkidura-erabilerakoa, ez bizitegirakoa HAPNk zehaztutako ia jarduketa guztiak bezala.

Jarduketa honetan Jarduketa Unitate bat mugatzen da orube bakarra aterata. Egikaritza pribatuko araubidea ezartzen da, ekimen pribatuaren ondoriozko jarduketa bat delako. Horregatik, ezartzen den jarduketa-sistema, hitzarmenezkoa da.

Ez da banaketa-gunetik mugatzen, aprobetxamendu-motako teknikari eta banaketa-gune edo areei dagokien legeria osoa indargabetua dagoelako eta ez da bidezkoa sortzen diren unitate berriei aplikatzea. Hala ere, HAPNan lehendik daudenetan mantendu egingo da 2/2006 Legearen seigarren Xedapen Iragankorraren arabera.

Jarduketa integratu berriari Txaltxakua izena emango zaio, horixe baitzen Unitate berri hau osatzen duten lursailetik lehen zegoen baserriaren izena.

HAPNn jarduketa integratuko fitxa berri bat sartu da, ondoren zehaztuko diren antolamendu-erabaki guzti hauek jasoko dituen.

PLANEAMENDUAREN AURREIKUSPEN BERRIAK.

Egikaritza Unitate berri bat sortzen da hiri-lurzoru finkatugabeen jarduketa unitate bat eratuta; horren erabilera nagusia ekipamendu pribatuarena izango. Esparruaren fitxan jasotzen diren hirigintza-parametroak hauek dira: Unitateak 2.100 m²ko azalera du eta jasoko den eraikinak izango duen gehieneko okupazioa 1.000 m²koa izango da; eraikigarritasuna, gehienera ere, 2000 m²koa. Aurreikusitako profila hauxe da: behean solairu bat, eta horren neurri bereko beste solairu bat gainean. Ekipamendu pribatuarena izango da haren erabilera nagusia. Eraikinaren



zati bat aparkaleku legez erabiltzeko asmoa dago, hain zuzen ere ekipamendu hura erabiliko dutenentzat. Unitateak sestra gaineratik duen eraikigarritasun fisikoa 0,95 m²koa da lurzoru metro karratu bakoitzeko. Edozein modutan ere, esparru honi ezin zaion aplikatu 77. artikulua dioena, erabilera ez delako bizitegirakoa eta ekipamendu berri sistema orokor bat delako.

Bestalde, jarduketa hori AP-8 autobidearen babesgunearen eraginpean dagoenez, bete egin behar du horren inguruan indarrean dagoen legeriak dioena. Legeria betetzearena Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bide azpiegitura Departamentuak baloratu behar du.

ALDAKETA PUNTUALAREN XEDE DIREN LURSAILEN JABETZA.

Toki Araubidearen Oinarrietako 70. artikulua haxe ezartzen du: Antolatze-ahala osorik baliatu gabe egindako hirigintza-antolamenduaren aldaketa batek eraikigarritasuna edo dentsitatea handitzen edo lurzoruaren erabilerak aldatzen dituzenean, espedientean jaso behar da zein diren aldaketak ukituriko finkek aldaketa hasi aurreko bost urteetan izan dituzten jabe guztiak edo haien gainean diren bestelako eskubide errealen titular guztiak, erregistroan edo erabilitako tresnan jasotakoaren arabera...

Artikulu horrek dioenaren arabera, haxe da jasota utzi nahi dena: dokumentu honen eraginpean dauden erregistro-finkak hauek direla:

Erregistroan

agertzen den

finka.

2623

2625

3253

3252

2285

2624



3249

451

